

H12.2 Jarduera sailkatuetarako lizentzia (baimendua)

Saila	Hirigintza
Zer da / Zertarako da	<p>Udal lizentzia honek ahalmena ematen du Zonalde industrialetan eragozpenak sorrarazi ahal dituen edo pertsoneri edota haien ondasunei arriskuak eragin ahal dizkien, eta, era berean, ingurumenari kalte egin ahal dion 7/2012 Legearen II. Eranskineko A) idatz-zatiko jarduera bat ezartzeko, zabaltzeko edo eraberritzeko, apirilaren 23ko 7/2012 Legeak aldatutako Euskal Herriko Ingurumenari buruzko 3/1998 Lege Orokorrak 55. artikuluan jasotako zerrendari jarraiki.</p> <p>Lokalean obrak egin behar izanez gero, jarduera-lizentzia izapidetu beharko da obrak egiteko lizentzia eskatu aurretik.</p>
Nork eska dezake?	Jardueraren titularra edo haren legezko ordezkaria.
Aurkeztu beharreko agiriak	<ol style="list-style-type: none">1. Informazioa eskatzeko idazkia, eskabide orokorrari jarraiki egina.2. Eskatzailearen NANA.3. Sustatzailearen ardurapeko aitortpena, ereduari jarraiki egina.4. Teknikari gaitu batek idatzi eta sinaturiko proiektu teknikoa, neurri zuzentzaileak proposatuta. Gutxienez honako hauek jaso beharko dira:<ol style="list-style-type: none">1. Ingurumen memoria: Jarduera eta berori garatzeko ezarritako neurriak azaltzen dituen memoria eta ingurumen memoria, honako hauek barne direla:<ol style="list-style-type: none">1. Ingurugiro Txostena: Jardueraren ingurugiro eta azalpen txostena, hauek barne direla:<ol style="list-style-type: none">1.1 Lokalaren deskribapena, erabileren araberrako azalera osoak eta partzialak (erabilgarriak eta eraikiak), eta, horrez gain, lokalak zer kokapen duen eraikinaren barruan, zer sarbide dituen eta nola komunikatuta dagoen.1.2 Fatxad(ar)en koloretako argazkia(k).1.3 Jardueraren deskribapena (helburua eta jardueraren garapenak edo ekoizpen prozesuak berezko dituen ezaugarri teknikoak, makineria, erregaiak, instalazio higienikoak...) eta jarduerak ingurumenean, pertsonengan edo haien ondasunetan izan dezakeen eragina gutxitzeko ezarritako neurrien deskribapena.1.4 Jardueraren funtzionamendurako beharrezkoa den makineriaren deskribapena eta ezaugarri teknikoak, eta, hala badagokio, lokala aireztatze eta/edo girotze aurreikusitako instalazioena.1.5 Lokalaren edo jardueraren aurrekariak, BERRIA den edo lehendik dagoena BERRITU EDO LEGEZTATU egin den zehaztuz eta azalduz.

	<p>1.6 Udal aplikazioaren araudia betetzen dela egiaztatzen duen agiria (Arau Subsidiarioak, ordenantzak, zaratari buruzko ordenantza, irisgarritasuna, suteen aurkako babes neurriak, osasun arauak eta abar).</p> <p>1.7 Araudi zehatzen pean dauden instalazioetan (instalazio elektrikoa, instalazio termikoa, gas instalazioa, igogailua eta abar), segurtasun industrialari buruzko araudietan ezarritako baimenak eta zerbitzuan jarri izanaren agiriak aurkeztu beharko dira.</p> <p>2.Planoak</p> <p>2.1 Jardueraren kokapena (gutxieneko eskala: 1:5000).</p> <p>2.2 Lokala edo eraikina zehazki non dagoen eta gainerako finkarekin erlazionatzen duen kokapen-planoa (gutxieneko eskala: 1:5000).</p> <p>2.3 Oinplano bornatuak: lokala osatzen duten maila guztien gaur egungo egoeraren plano bornatuak, honako hau adieraziz: -- Lokala osatzen duten bulego guztien banaketa eta erabilera, kotak eta azalera zehaztuta (gutxieneko eskala: 1:50), bai eta irisgarritasunari buruzko arauak betetzen direla egiaztatzen duen agiria ere. -Instalazioak: aireztapena, girotzea, makineria, suteetatik babesteko neurriak, saneamendua, iturgintza, elektrizitatea (gutxieneko eskala: 1:50).</p> <p>2.4 Sekzio Bornatuak Guneen eta erabileren altuerak, hodiak, instalazioak, makineriak eta abar erakusten dituzten sekzioak (luzetara eta zeharretara) (gutxieneko eskala: 1:50). Bere sarbideak eta sestra-kotek trazatutako sekzioa.</p> <p>2.5 Fatxadak, oraingo eta geroko egoeran (gutxieneko eskala: 1:50).</p> <p>2.6 Jarduerarako beharrezkoak diren beste xehetasunezko plano batzuk.</p> <p>3. Ingurumen-eraginari buruzko azterlana: ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedura bete behar duten jarduerak soilik.</p> <p>4. Proiektuaren idazlearen prestakuntza teknikoa edo gaikuntza profesionala egiaztatzea, baldin eta proiektua dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsi ez badu.</p> <p>5.- Agiri guztien hiruna alde aurkeztu beharko dira paperean, eta kopia bat erantsi ahalko da formatu elektronikoa (CD edo USB bidez), izapideak arintzeko.</p>
<p>Non eskatzen da?</p>	<p>Aurrez aurre:udaletxean (San Bartolome 2, astelehenetik ostiralera, 09:00etik 14:30era). Postaz: posta-bulegoetan, ziurtagiri irekiaren bidez. Telematikoki: harrera@ibarra.eus</p>
<p>Zenbat kostatzen da?</p>	<p>Zonaldearen araberako tasa:</p>

Prozeduraren epea	-Zenbatetsitako epea: lau hilabete. -Legezko gehieneko epea: sei hilabete. -Administrazioaren isiltasunaren ondorioak: aldekoa, ingurumen arloko organoaren aurkako txostena izan ezean.
Araudi aplikagarria	-Apirilaren 23ko 7/2012 Legeak (BOE, 116. zk., 2012/05/15) neurri batean aldatutako Euskal Herriko ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorreko 55-66. artikulua (EHAA, 59. zk., 1998/03/27).
Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura	1. Eskabide-orria eta agiriak jasotzea, eskaneatzea, egiaztatzea eta erregistratzea. 2. Eskatzaileari kopia zigilatu bat ematea, ziurtagiri gisa. 3. Hirigintza Sailari bidaltzea.
Geroagoko izapideen laburpena	1. Jendaurrean ikusgai jartzea GAOn, eta bizilagunei pertsonalki jakinaraztea. 2. Osasun-administrazioari bidaltzea, arauko txosten loteslea egin dezan. 3. Dagokion ingurumen-organismoari bidaltzea, neurri zuzentzaileak ezarriko dituen txostena egin dezan (loteslea, aurkakoa bada). 4.- Ebazteko, jakinarazteko eta likidatzeko administrazio-egintza. 5.- Jarduera instalatu eta egokitu ondoren, interesdunaren aurretiazko komunikazioa, eta, horrekin batera, teknikari gaitu batek egindako agiria (ereduaren arabera), proiektuari doitzen zaiola eta ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen dituela egiaztatzen duena. Jarduera aurkezten den egunetik aurrera egin ahalko da. 6.- Teknikari gaitu batek egiaztapen-bisita egitea, gehienez ere astebeteko epean. 7.- Jarduera erregistratzea.
Agiri lagungarriak	Hirigintzako Eskatera Aitropen Arduraduna Ordezkapen idatzia
Nork onartu behar du?	Alkatetzako dekretua.
Izapidetzeko ardura duen udal saila	Hirigintza
Informazioaren balioaldia	Araudia aldatzen den arte.

Oharrak

Ezingo da obrak egiteko lizentziarik eman jardueraren lizentzia izapidetu ez bada; nolana ere, aldi berean eskatu eta izapidetu ahalko dira.
baldin badaude.